

## **AHOZKO EUSKARA FORMALA AISIALDIKO EUSKARAREN OSAGARRI. ZORNOTZAKO GAZTE BATZUEN DATUAK**

**Maialen Arnedo, Ane Badiola & Leire Gandarias**  
UPV/EHUko Euskal Filologiako azken urteko ikasleak

Itziar Idiazabalek eta Leire Diaz de Gereñuk irakasten duten Euskararen Irakaskuntzarako Metodologia (Euskal Filologia, UPV/EHU) ikasgaiaren barruan, 2010ko udaberrian, Zornotzako ikastetxe batean bigarren batxilergoko D ereduko hamazazpi ikasleko talde batekin debate bat egin zen, eskolan gutxi lantzen den ahozko euskararen genero formal honetan nolako baliabideak agertzen diren aztertzeko.

Bereziki aztertu diren atalak hauek dira: debatearen kudeaketa orokorra (solaskideen eta moderatzailearen parte-hartzeak nola bideratzen diren) eta debatean jorratutako eduki gaien kudeaketa (gai berriak proposatzea, mantentzea, aldatzea, eta abar) hartarako erabiltzen dituzten baliabideak aztertuz (antolatzaileak, sarrera egiturak, berformulatzailak, eta abar). Eraitzen arabera ikus daiteke gazte hauek badituztela hainbat gaitasun baina gabeziak ere nabari dira. Gure ustez, aisialdian euskara gehiago erabiltzeko eskolak berezkoak dituen ahozko genero formalak gehiago lantzea eraginkorra izango litzateke.